



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

Hautzaro ikastola

Ikastetxearen kodea:

012352

Data:

2023(e)ko apirilaren 30(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Haurtzaro Ikastola 1967an sortu zen herri ekimenari esker, bokazio publikoarekin eta euskara eta euskal kulturarekin konprometituta. Bitarte luze horretan, guraso, langile (irakasle eta ez-irakasle), oiartzuar laguntzaile eta ikasle askoren lana eta parte-hartzea izan da ikastolaren benetako bultzatzaile eta eragilea. Gaur egun gurasoen eta langileen artean osatutako Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba Bateratzailea (bertako partaideak gurasoak eta langileak baitira), eta Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko partaide gara.

Haurtzaro Ikastola eratzen dugun guztion partaidetzan eta talde lanean oinarrituz, etengabeko hobekuntzaren bidez, nortasun propioa lortu nahi dugu. Haur eta gazte oiartzuarrak pertsona gisara hezten lagundu nahi ditugu, beren osotasunean, euskalduntasunean oinarrituz eta beste kulturak errespetatuz, naturarekiko adeitasuna sendotuz. Munduari begiratuko dieten ikasle euskaldunak, arduratsuak eta kritikoak formatu nahi ditugu.

Haurtzaro Ikastolaren hezkuntza proiektua bost zutabetan oinarritzen da:

1. Proiektzioa: heziketaren antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko egina dago.
2. Globaltasuna: ikastola osatzen duten oinarritzko elementuak uztartzen ditu.
3. Integrazioa: printzipioak, teoria eta praktika, irakaskuntza eta gizartea elkar lotzen ditu.
4. Errealismoa: egunerokotasunari aurre egiteko proiektua da, egunean-eguneko lana eta gure baliabideak kontuan hartuz egina.

5. Malgutasuna: hezkuntza bera prozesua dela ulertuz, gerora etor daitezkeen aldaketei irekia dago.

Haurtzaro Ikastola Oiartzun herrian, Gipuzkoako ipar-ekialdean, kokatuta dago. Oiartzun 10 bat mila biztanle dituen herria da, mendiz inguratua, zortzi auzo ezberdinetan banatzen da. Elizalde auzoa da azpiegitura gehien duen auzoa, bertan kokatzen da Ikastola.

Industria (metalurgia, zurgintza, kautxu-erlaldaketa eta produktu mineralen industria), zerbitzuak (hipermerkatuak), abeltzaintza (esne eta haragi-behiak) eta nekazaritza dira jarduera nagusiak. Hirugarren sektore da %66az sektorerik indartsuena.

Oiartzungo hizkuntza nagusia Euskara da, goi nafarreran eragina duen Gipuzkera.

2022-23 ikasturtean 544 familietako 832 ikasle biltzen ditu. 100 bat langile ditu egun, 70 irakasle eta zerbitzu eta administratzaileak 30 langile.

Joan den ikasturteko ebaluazio diagnostikoaren ISEK mailaren arabera familiek sozioekonomiko eta kulturalko maila erdi-altua dute.

Ikastolak 3-16 urte arte hezkuntza eskaintzen du, baina 0-3 urteko eta 16-18 hezkuntza eskaintzen duen beste bi patronatuen parte da.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gailuak

- Ikasle gailuak: LH 5etik DBH 4ra bitarte ikasle bakoitzak bere chromebooka du.

LH 4. mailako ikasleek 22 chromebook dituen armairua partekatzen dute eta LH 3koek 30 Windowspeko eramangarri dituen armairu bat. LH 1 eta 2 geletan chromebook bana dugu eta HHn eremu bakoitzean chromebook bana.

- Irakasle gailuak: LH eta DBHko irakasle guztiek chromebook bana dute. Horrez gain irakasle mintegi bakoitzean Windowspeko 3 eramangarri indartuta dugu. HHko irakasleek eremuetako eta HHko irakasle geletako chromebook eta windowspeko ordenagailuekin, ordu osagarrietan ordenagailu bana izatea bermatzen da.

- Administrazio eta zerbitzuetako langileek Windowspeko ordenagailuak erabiltzen dituzte. Jantokikoak dira zuzeneko erabilerarik egiten ez duten bakarrak.

- Gainontzekoak; gela berezietan, teknologia, laborategia, aretoak... chromebook bana jarri dugu eta konponketa garaian ordezkari gisa beste dozena bat ordenagailu ditugu.

Geletako ekipamendua

- Gela gehienetan, monitore interaktiboak, ezarri dira. LH 3tik DBH 4ra erabiltzen diren gela guztietan monitore interaktiboak jarri dira. HH, LH 1 eta LH2 geletan proiektoreak ditugu.

Konektibitatea

- Internetarako konektibitatea: 3 linea internet. Lehenengo biak, Movistar plataformapean, Movistar eta Linea 3000ri kontratatuta, bi hauek internetaren karga banatzen dute modu balantzeatuan. 3. linea, Euskaltelekoa, backuperako erabiltzen da batipat.

- Firewall aldetik Sophos etxeko bi ditugu, bikoiztua dago. HA, high availability moduan konfiguratuak. VPN zerbitzua firewall hauen kontra konfiguratu da.

- Zerbitzariak, bi host fisiko dira eta 8 zerbitzari birtual. Lehenengo host-ak produkzioarako makina birtualak ditu eta bigarren host-a erreplikak eta segurtasun kopiak egitera bideratuta dago. Host01 eroriko balitz host02 produkzioan sartzeko aukeran

dago etena ahalik eta txikiena izateko.

- Kable sarea: zuntza eta kobrezko sareko kable bidez konektatuta ditugu ikastolako eraikin ezberdinak. Ikastolako solairu guztietan sare puntuak gaituta daude RJ-45 Cat6A-ko kable bidez. Switch eta zerbitzarien artean SFP+eko kableek egiten dute lotura.

- Wifi sarea ikastolan zehar leku zehatzetan jarririk dauden 25 wifi AP-k eta AP kontrolatzaile batek osatzen dute. WPA2 segurtasuneko 7 sarek eta gonbidatuen sare batek osatzen dute. Wifi sare batzuk sareko sarbidea dute eta beste batzuk internetera mugatuak daude. Beharren baitan banatzen dira baimenak.

Plataforma eta zerbitzu digitalak

- Domeinuak: ikastolako bi domeinu erabiltzen ditu, bi google kontu. @haurtzaroikastola.eus ikasle eta irakasle arteko lanetara bideratua dago. @haurtzaro.ikastola.eus domeinua familia, ikastola eta langile artekoa.

- Gestio aplikazioak: Alexia, erabiltzen da nagusiki. Alexia eta kalkulu orriak zenbait kasutan, kalkulu orri hauek exportatu daitezke Alexia bertara. Alexia gestio aplikazioaren bidez, filiazioa, komunikazioa, gestio akademikoa, fakturazioa eta zerbitzuak kudeatzen dira.

Spiceworks plataforman gailu informatikoen inbentarioa jasotzen da.

- H10: Informatika mekanografiaren aliantzarik gabe oso bestelakoa litzatekeela kontuan hartuta LH 4., 5. eta 6. mailatan lantzen da ikastolen elkarteak propio sorturiko aplikazio hau.

- IIB: LHko beheko mailatan errepositorio gisa blogak erabiltzen baziren ere, pandemia garaia Google Classroomera salto egitea ekarri du. Google Classrooma da beraz ikasketarako ingurune birtualetara ikasleak egiten duen hurbilketa, nahiz irakasleek beren materialak Blink Learning plataformapean eduki argitaratuak.

DBHn berriz, pandemia aurretik zein ondoren moodle plataforman oinarrituriko Saioka erabiltzen da arlo guztietan. Bertan argitaraturiko materiala, egokitutakoa edo propio sortutakoaz.

Haur hezkuntzan ez da IBBrik, soilik errepositorio gisa etapako bloga eta maila bakoitzeko sites-a erabiltzen dira

- Segurtasun kopiak: Zerbitzari birtual bat eguneroko segurtasun kopiatarako erabiltzen da. Egunero hiru segurtasun kopia egiten dira hiru leku ezberdinetan eta hiru ordu ezberdinetan. Host01-eko makinak Host02-ko diskoetan erreplika egiten dute eta alderantziz.

Driveko fitxategiari dagokionez Spanning backup aplikazioa kontratatua dago. Ikastolako bi domeinuetako norberaren fitxategien eta talde-unitateetako fitxategien kopia egiten da.

Mantenua

- Mantenuurako IKT talde propioa eta kanponko enprekin konbinatzen da. IKT talde propioak, dinamizatzailea eta ikt mantenuko arduradunak, lehen instantzia batean jaso eta aztertzen dituzte sortzen diren eguneko arazoak. Eta lehen iragazki honetatik pasa ondoren DUOK ala XENON kanpoko enprekin egiten da lotura, arazoaren baitan bat ala beste, ikastolan bertan konpontzeko gaitasunik ez bada.

Zerbitzariak, segurtasun kopiak, sare eta internetaren azpiegitura batipat DUOK kanpoko enpresari bideratzen zaio.

Gailuen eta geletako baliabideen intzidentziak XENON kanpoko enpresari.

Beti ere bertako mentenuak lehen begirada eman eta konpontzeko gai ez bada.

- Mantenu prebentiborako kanpoko enpresarekin protokolorizatua dago bai software eta hardware gailuen kontrola eta matxura/ordezkapenak/eguneraketak; ordenagailu, zerbitzari eta sistema nagusietan ere. Horrez gain IKT batzordea (IKT taldea, zuzendaria eta administratia) hiruhilean bitan biltzen da. Bertan egiten da IKT baliabideen egoeraren, matxuren eta beharren analisia.

- Mantenu zuzentzailerako protokoloa ezarrita dago. Arazoren bat topatzen duen langileak Spiceworks plataforma bidez tiketa irekitzen du eta ikt taldearen esku geratzen da arazoaren azterketa eta konponketa. Plataforma honen bidez, arazoa topatu duenak eta ikt taldekoek erabakitako erabiltzaileek, arazoaren azterketa eta konponketa zein momentutan dagoen jasotzen du. Plataforma hau bera inbentariarako erabiltzen da.

Plataformez gain IKT taldearen hitzordua egiteko calendarreko hitzordu sistema erabiltzen da.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeke eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturen eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, eragin hori emakumeengan eta gizonengan desberdina dela eta teknologiaren, pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etikoak ere behar du, ikasleen konpetentzia digitalean zein irakaskuntzako konpetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorriz.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleak XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleak irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten. Horregatik, ikastolatan egiten diren

hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarrizko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik duen zentzua. Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleen eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleen eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatuko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestuko direla. Ikasleen garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du", hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoerarako Kontingentzia Planak ikasleen eta irakasleen gaitasun digitala bermatuko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetentzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitalki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan, zuzendaritza-proiektuan eta urteko programazio orokorrean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren, Zuzendaritza Proiektuaren eta Urteko Programazio Orokorraren (PGA) parte den tresna izango da.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOPEdagogiko BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleak heztea baita irakasleon zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikroultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzeptua.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big data, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbat ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia

ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoaren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiaren ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hizkuntzen i(ra)kaskuntzaren eta teknologiaren arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta. Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculum implementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu "IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan" proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarteak izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure digitalizazio barzordearekin elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Gure digitalizazio batzordeari dagokionean, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaritza taldeko kide bat zehaztu da. Pertsona honek mentoreak eskeinitako informazioa zuzendaritza talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izango den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionean, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskainitako laguntza ete ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia:

Urriaren zehar eta "Selfie for School" tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen islada jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuta.

2 - Analisisia:

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekingo zaio. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratzuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealak izan beharko dute.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 13a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

IKTak ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat datoz eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da curriculumaren eremuko 4. eta 5. atalean, langileen prestakuntza eguneratua eta langileen garapen profesionala formakuntza plana aurreikusi eta palnifikatzea aipatzen denean.

Plan estrategikoaren aipamen orokorra urteko plan orokorrera eta hauetatik etapetako planetara eta ikt planera hedatzen da. Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikoaren orokortasunetik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuagoak izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren ala ez. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du. Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspina (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Etapa bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

HAUR eta LEHEN HEZKUNTZA

ADOSTASUNAK

A. Lidergoa

- A1. Estrategia digitala (zuzendaritzak 4 eta irakasleek 3.5)
- A2. Estrategia irakasleekin garatzea (zuzendaritzak 4 eta irakasleek 4.1) Indargunea izan daiteke
- A5. Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak (zuzendaritzak 4 eta irakasleek 4.3) Indargunea izan daiteke.

B. Kolaborazioa eta sareak

- B1. Aurrerapenaren ebaluazioa (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.7)
- B2. Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 3.3)

C. Azpiegitura eta ekipamenduak

- Atal honetako galdera guztietan adostasun maila handia dago. Indargunea da.

D. Etengabeko prestakuntza profesionala

- D1. EPP beharrak (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3)

E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

- E2. Baliabide digitalak sortzea (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.7)
- E4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 4.7) Indargunea da

F. Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

- F3. Sormena sustatzea (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 3.3)
- F4. Ikasleen inklusioa (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.4)
- F5. Ikasleen arteko elkarlana (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.1)

G. Ebaluazio-jarduketak

- G1. Gaitasunen ebaluazioa (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 3.4)
- G3. Atzeraelikadura egokia (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 2.5) Ahultasuna izan daiteke
- G5. Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea (zuzendaritzak 2 eta irakasleek 2.3) Ahultasuna izan daiteke
- G6. Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea (zuzendaritzak 2 eta irakasleek 1.9) Ahultasuna izan daiteke

H. Ikasleen kompetentzia digitalak

- H7. Eduki digitalak sortzea (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 4.5) Indargunea izan daiteke
- H11. Kodetzen edo programatzen ikastea (zuzendaritzak 2.5 eta irakasleek 2.9) Ahulgunea izan daiteke

DESADOSTASUNAK

A. Lidergoa

- A4. Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 2.5)

E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

- E1. Hezkuntzako online baliabideak (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 4.5)

F. Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

- F1. Ikasleen premietara egokitzea (zuzendaritzak 2, irakasleek 3.3, irakasleek 4.7)

BIGARREN HEZKUNTZA

ADOSTASUNAK

A. Lidergoa

- A1. Estrategia digitala (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4) Indargunea izan daiteke
- A4. Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 2.9)
- A5. Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4.3)

B. Kolaborazioa eta sareak

- B1. Aurrerapenaren ebaluazioa (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 3.1)
- B3. Elkarlana (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4.1)

C. Azpiegitura eta ekipamenduak

- Atal honetako galdera guztietan adostasun maila handia dago. Indargunea da.

D. Etengabeko prestakuntza profesionala

- D3. Bizipenak partelatzea (zuzendaritzak 2.5 eta irakasleek 3.8)

E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

- E1. Hezkuntzako online baliabideak (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4)

- E4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 4.5) Indargunea da

F. Pedagogia: ikasgelan aplikatzea

- F4. Ikasleen inklusioa (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.84)

- F5. Ikasleen arteko elkarlana (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.9)

G. Ebaluazio-jarduketak

- G1. Gaitasunen ebaluazioa (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 3.4)

- G3. Atzeraelikadura egokia (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.6)

H. Ikasleen konpetentzia digitalak

- H1. Portaera segurua (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4.1) Indargunea izan daiteke

- H4. Informazioaren kalitatea egiaztatzea (zuzendaritzak 4 eta irakasleek 3.6)

- H6. Besteek egindako lana aitortzea (zuzendaritzak 3.5 eta irakasleek 3.8)

- H7. Eduki digitalak sortzea (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 4.4) Indargunea izan daiteke

- H8. Komunikatzen ikastea (zuzendaritzak 4 eta irakasleek 4.5) Indargunea izan daiteke

DESADOSTASUNAK

A. Lidergoa

- A2. Estrategia irakasleekin garatzea (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 4)

B. Kolaborazioa eta sareak

- B2. Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida (zuzendaritzak 2 eta irakasleek 3.7)

E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

- E3. Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 3.3)

G. Ebaluazio-jarduketak

- G5. Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea (zuzendaritzak 2.5 eta irakasleek 3.8)

- G6. Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea (zuzendaritzak 2 eta irakasleek 1.9)

- G7. Ebaluazioa digitala (zuzendaritzak 3 eta irakasleek 4.1)

H. Ikasleen konpetentzia digitalak

- H1. Portaera segurua (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 4)

- H1. Portaera arduratsua (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 3.7)

- H4. Informazioaren kalitatea egiaztatzea (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 3.6)

- H6. Besteek egindako lana aitortzea (zuzendaritzak 4.5 eta irakasleek 3.4)

- H10. Arlo ezberdinetarako trebetasun digitalak (zuzendaritzak 5 eta irakasleek 3.9)

Etapen desberdinen arteko ondorioak edo laburpenak, etapen arteko desberdintasun eta adostasunak adieraziz.

Orokorrean, adostasun maila altuak atentzioa deitzen du. HH eta LHn kohesioa nabarmenagoa da, DBHn ordea erabilera gehiagok desadostasun gehiago sortu ditu.

A- LIDERGOA

Ondo baloratzen da atal hau hiru etapetan, nahiz eta atal honetan eta selfiaren beste zenbaitetan, denbora eskasiaren arazoa ageri, A4. Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora

B-KOLABORAZIOA

Beste erakundeekin lan egiteko teknologia digitalak erabiltzen direla eta teknologia berrien erabileraren aurrerapena ebaluatzen denaren adostasuna dago.

Aldiz teknologiaren erabileraren buruzko eztabaidari buruz, atapa arteko irakasleen iritzia antzekoa izan harren bi etapetako zuzendaritzek desadostasunak ageri dituzte.

C-AZPIEGITURA

Azpiegituretan maila guztietan balorazioak oso altuak dira, bai etapen artean eta bai estamentuen artean. Nabari da indargunea dela.

D. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PROFESIONALA

Antzeko balorazioak daude hiru etapetan, nahiko erdi-mailakoak, nabarmena D3 puntuan Bizipenak partekatzea ahultasun gisa kontsidera daitekeela.

E. PEDAGOGIA: LAGUNTZAK ETA BALIABIDEAK

E1 - Hezkuntzako online baliabideak oso ondo baloratu da, 4tik gora etapa guztietan eta E4 - Hezkuntza komunitatearekin komunikazioa oso ondo baloratu da, 4.8tik gora etapa guztietan. Biak indargune izan daitezke.

Desadostasunik ez da beste ataletan.

F. PEDAGOGIA: IKASGELAN APLIKATZEA

Antzeko balorazioak daude hiru etapetan, nahiko erdi-mailakoak. Orokorrean irakasleek nabarmen baxuago ikusten dute zuzendaritza eta irakasleek baino.

G. EBALUAZIO-JARDUKETAK

Orokorrean zuzendaritzak eta irakasleek baxuen baloratzen duten atala da hau. G7. ebaluazio digitala atala da ongien baloratzen dena

Baina G3 Atzeraelikadura egokia, G5 Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa eta G6 Beste ikasle batzuei haien lanari

buruzko iruzkinak egitea ahultasun gisa markatzeko adostasun maila handia da.

H. IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALAK

Azpiegituren atalaren ondoren ongien baloratua dagoen atala da. Ikasleen portaera segurua eta arduratsua izateko, eduki digitalak sortzeko, komunikatzeko eta arlo ezberdinetarako trebetasun digitaletarako konpetentziak dituztela baloratzen da.

Baina DBHn zuzendaritza eta irakasleen arteko desadostasuna handia da era berean.

Kodetzen eta programatzen ikasteak erdi mailako balorazioa du eta baxuena arazo teknikoak konpontzea, LHn batez ere.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

- 1.- Ebaluazio-jarduketetan, atzeraelikadura, nor bere ikaskuntzaren hausnarketa, beste ikasle batzuri iruzkinak
- 2.- Bizipenak partekatzea
- 3.- Diziplinarteko proiektu pedagogikoak
- 4.- Irakaskuntza digitala aztertze eta aritzeko denbora falta

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

- 1.- Azpiegituren garapenek eta eskakizunek obsoleszentzia azkartzea
- 2.- Egoera energetiko eta ekonomikoa gero eta larriagoak digitalizazio planari muga diezaiokena
- 3.- Desdigitalizazioaren aldeko ekimenak gizarte talde batzuetan

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

- 1.- Digitalizazioari buruz adostasun handia da komunitatean
- 2.- Azpiegiturak: gailu digitalak, internet sarbidea, laguntza teknikoa eta datuen babesa
- 3.- Ikasleen konpetentzia digitala: portaera seguru eta arduratsua, edukiak sortzea eta komunikatzea
- 4.- Hezkuntza online baliabideak eta hezkuntza komunitatearekin komunikazioa

Aukerak (kanpo-faktoreak)

- 1.- Europak Next Generation funtsen bitartez digitalizazioan aurreratzeko eskaini duena
- 2.- Europar komisioak konpetentzia digitalari ematen dion garrantzia
- 3.- Digiprest ikastaroaz baliatu irakasleen konpetentzia digitalaren zertifikazioak lortzeko

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Azpiegitura gehienak egokiak badira ere Next Generation funtsen aukerak digitalizazioan aurrera egiteko aprobetxatzea

Digiprest ikastaroaz hezkuntza online baliabidean eta komunitatearen komunikazioa indartu daiteke

Teknologiaren erabilera hedatuta izanik ere, irakasleen prestakuntzaz baliatuz akreditazio ofiziala lortzea

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Digitalizazioari Europatik ematen zaion garrantziaz baliatuz, digitalizazio plana eta estrategia digitala irakasleen denbora arazoari irtenbide posibleak eta eraginkorragoak proposatzeko

Irakasleen prestakuntza aprobetxatu ikasleen konpetentzia digitalaren garapenean dauden hutsuneak betetzeko eta hauen arteko elkarlana hobetzeko; atzeraelikadura, iruzkinak...

Irakasleen prestakuntza aprobetxatu irakasleen konpetentzia digitalaren garapenean dauden hutsuneak betetzeko eta hauen arteko elkarlana hobetzeko; bizipenak partekatzeko, diziplinarteko proiektuak eta irakaskuntza digitala aztertzeko

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Egun azpiegitura eta baliabide egokiak izateak, krisi ekonomiko baten edo obsolentzentiaren aurrean posizio aurreratuan izateak, inbertsioak egiteko zailtasunak izan arren, ikastolaren digitalizazio prozesuarekin jarraitzeko aukera izango da

Ikasleen portaera seguru eta arduratsua eta hezkuntza komuninatearekin komunikazioa egokia izateak, desdigitalizazioaren aldeko mugimenduak indargabetzeko baliagarria gerta daiteke

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Egoera ekonomiko larriak, digitalizazio prozesuetan laguntzeko behar den denbora eskaintzeko zailtasunak ondoriozta ditzake

Diziplinarteko proiektu pedagogikoek desdigitalizazioaren inguruko eztabaidak areagotu ditzazke

Ebaluzio-jarduketetan, atzeraelikadura, hausnarketa eta koebaluzioak digitalizazioan aritzeko denborarekin talka egin dezake



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Deskriptorea	Epea	
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Teknologia digitalak eguneko jardunbidean, bereziki ebaluazioan, integratuko dira. DBHko arloen %60an ezarriko da.

Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa eg	Ehunekotan	60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
LH 3. zikloan koaderno digitala pilotatze	Alexia	LHko ikasketaburua	2024/06/30	Egina
DBHko liburu digitaletan dabiltzan hainbat irakasleen prestakuntza eta arlo hauetan koaderno digitala ezartzea	Alexia	DBHko ikasketaburua	2024/01/30	Prozesuan (%40-59)
Egindako frogaren eta emaitzaren arteko hausnarketa etapako klasustroan egitea	Etapako bilerak	Zuzendaritza	2024/06/30	Prozesuan (%60-79)

Helburua

Ikasleen portaera segururako gaitasun digitalak garatu DBHko ikasleen artean, online ingurunetan segurtasunez aritu daitezen.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024/06/24	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DBHn, gela bakoitzeko, IKT ikasle arduradunaren figura sortu eta izendatzea	Tutoretza saioak	DBH ikasketaburua eta tutoreak	2024/06/30	Egina
IKT ikasle arduradun eta IKTetako arduradunaren arteko batzordea eratu eta funtzionamendua egituratzea		DBH ikasketaburua eta IKT arduradura	2024/09/30	Egina

GP Garapen profesionala

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

--

Deskriptorea	Epea

Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Azpiegituren obsoleszentziari aurre hartzeko gailu eta sarearen jarraipena eta egokitzapena zaintzea, WIFI sarearen azpiegitura errefortzatuz eta zuntz bidezko interneterako konexioak hobetuz, gutxienez 2 inbertsio eginez.		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.2 Ezagutza aditu pedagogiko eta teknikoek gidatzen dituzte teknologia digitaletako inbertsioak	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.2 A1 Ikastetxeak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearen bitartez, Hezkuntza Sai	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT batzordea eratu	IKT batzordeko aktak	Zuzendaritza eta IKT arduradunak	2023/06/30	Egina
2023-24 ikasturtean, hiruhilero bilera bat egin, gutxienez.	IKT batzordeko aktak	Zuzendaritza eta IKT arduradunak.	2024/06/30	Prozesuan (%20-39)
2024-25 ikasturteko inbertsio plana idatzi	IKT batzordeko aktak eta IKT urteko plana	Zuzendaritza eta IKT arduradunak.	2024/06/30	Hasita (%1-19)

Helburua		
Azpiegituren obsoleszentziari aurre hartzeko gailu eta sarearen intzidentzien jarraipena eta egokitzapena zaintzea, Spicworks plataformaren bidez, intzidentzien jarraipenerako %100ean tiket sistemaren bidez eginaz.		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.6 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Intzidentziak jasotzeko tiket sistema ezarri	Spiceworks plataforma	IKT mantenu arduraduna	2023/06/28	Egina
IKT intzidentzien protokoloa harrera dokumentuan jaso	Irakasleen harrera dokumentua	Zuzendaritza	2024/06/30	Hasita (%1-19)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG					
II	2024-06-30	Koaderno digitalen erabileraren ondorengo hausnarketa etapako bileren aktan jaso sa	DBH ikasketaburuak	Egina	DBHko ezarpena zabaldu eta LHn inplantatu nahi da irakasle koadernoan
II	2024-09-30	IKT ardura duten ikasle ordezkariak batzordea eratu eta aktak jaso dira	IKT arduraduna	Egina	Aurtengoa esperientzia positiboki baloratu denez, hurrengo ikasturtean jarraipena eman nahi zaito.
GP					
EJ					
EC					
EN					
AZ	2024-06-30	IKT batzordea izendatu da, bitzen da eta inbertsio plana eratu du	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	Egina	Hurrengo ikasturtean inbertsioekin jarraitu nahi da
AZ	2024-06-30	Intzidentziak jasotzeko plataforma martxan jarri eta irakasle harrera dokumentuan jaso da	DBH ikasketaburuak eta IKT arduraduna	Egina	Intzidentziak jasotzeko plataformarekin jarraitu nahi da.
IB					